



2026KO URAREN JAIA ANTOLATZEKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3249

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidente ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Jesus Maria Moran Salguero
4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.-Kontratuaren xedea:Kontratu honen xedea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren 2026ko Uraren Jaia antolatze laguntza teknikoa da. 2.- Bete beharreko premiak: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak urtero antolatzen du Uraren Jaia deritzon ospakizuna, eta Bizkaiko biztanleak ura erantzukizunez erabiltzearen balioen inguruan sentibilizatzeko eta biztanleok parte hartzeko programaren parte da, bai eta ate irekiei lotutako eta Partzuergoak kontsumorako urak tratatzeko egiten duten lanetara hurbiltzeko programaren parte ere. Familiarteko jolas-giro batetik abiatuta, Arrigorriagako hirigunea eraldatuko da eta bereziki zero eta hamalau urte bitarteko adinentzat egokitutako jolas-, kultura-, eszena- eta dibulgazio-jokoz beteko da. Horrez gain, Beteluriko EUTa bisitatzeko egitaraua ere egongo da. 3.-Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: 2026ko Uraren Jaia antolatzeko zerbitzu-kontratua ez da lotetan banatuko, zatiketa horrek kontratuaren berezko garrantzia galtzea ekarriko lukeelako. Egun bateko ekitaldi bat egiteko zenbait erakunderen arteko kudeaketa eta antolaketa garestiagoa eta kaltegarriagoa da Ur Partzuergoarentzat, eta, gainera, antiekonomikoa da lizitatzaileentzat.
4.- CPV: 71356200-0 - Deskribapena: Laguntza teknikoa emateko zerbitzuak
5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ
6.- Izaera juridikoa ☒Administratiboa ☐ Pribatua



C.-KONTRATUAREN PREZIOA				
1.-Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)	HIRUROGEITA	HAMAR	MILA	EURO
	(70.000,00 €), BEZik GABE			
2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 70.000,00 euro Loteak: ☐ BAI ☒ EZ				
3.-Prezioa zehazteko sistema: ☒ Oroharreko prezioa ☐ Aleko prezioak				
4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa: Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira: 920,03-226,03 URTEA: 2026 70.000,00 €				
5.-Prezioak berrikustea: ☐ BAI ☒ Ez				
6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea: ☐ BAI ☒ EZ				
7.-Ordaintzeko modua: Ohikoa Ziurtagiri bidez				
8.-Ordainketak kontura: Ez				

D.-KONTRATUAREN EPEA
1.-Iraupen osoa: EGUN BAT (1).
2.-Epe partzialak. ☐ BAI ☒ EZ
3.-Luzapena ☐ BAI ☒ EZ
4.-Berme-epea: Ez da aplikatu behar
5.-Kontratua betetzeko tokia: Beteluriko EUTa eta Arrigorriaga udalerria
6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak ☒ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK	
Behin betiko bermea: % 5	Zenbatekoa: Adjudikazioa
☐ Berme osagarria:	Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA
Urteko negozio-bolumenak, aintzat hartuta amaitutako azken hiru urteetan negozio-bolumen handiena izan duen urtea, kontratuaren batez besteko urte eta erdiko kopurua halako bat izan beharko du gutxienez (105.500,00 €).



G- KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknika edo profesionala egiaztatzeko, azken hiru urteetan kontratuaren xedearen antzeko izaera duten zerbitzuen zerrenda aurkeztu beharko da, eta gauzatze handieneko urtean haien zenbateko metatua urteko kontratuaren urteko bestez besteko kopuruaren % 70 edo gehiago izango da: 49.000,00 €.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

EZ

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Plegu teknikoetan jasotakoa. Hemen zehaztu beharko da:

- Exekuzioaren memoria teknika eta metodologia, zeinak jardura hauek eta horien deskribapena jasoko eta zehaztuko dituen: Jolas-jokoak, bisitak Beteluriko EUTra, animazioa, tailer didaktikoak eta erakusketak. Horien programazioa, kokapena, ordutegiak eta xede-publikoa. Jaiko gune eta jardueren apainketa eta giroa; jaiaren irudia.
- Kontraturako jarritako bitarteko teknika. Jaian erabiliko den azpiegitura: Komunak, paperontziak, aldagelak, agertokiak, hesiak, haurrentzako guneak, edoskitze-guneak, aldagelak, haurdunentzako elikagaiak... Giza baliabideen deskribapena, langile-antolamendua, monitoretzalanak, ordutegiak, BBUPren koordinatzaile den pertsona edo pertsonak zehaztuta.
- ingurumen-irizpideak. Deskribatzea jardura, tailer edo antolatze eta hesitzeko bitartekoak. Gainera, birziklagarriak edo berrerabilgarriak diren adieraziko da. Erabilitako guneetan ingurumena babesteko eta jaietako jardueretan garapen jasagarria sustatzeko neurriak.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.



I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoa aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidente:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoei (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + B_M) / 2$	48 puntu
B _M	47 puntu
$0,8 \times B_M$	46 puntu
$0,6 \times B_M$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoen emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuaren banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

1.- Exekuzioaren memoria teknika eta metodologia - 0-30 puntu:

2.- Kontraturako jarritako baliabide teknikoak - 0-15 puntu:

3.- Ingurumen-irizpideak - 0-5 puntu:

1.- Exekuzioaren memoria teknika eta metodologia: 30 puntu.

- Jarduerei buruzko memoria:

Lizitatzailerak jarduera hauen deskribapena jasoko duen memoria aurkeztu beharko dute:

- Jolas-jokoak.
- Instalazioen bisita.
- Animazioa.
- Tailer didaktikoak eta erakusketak.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Proposatutako jardueren kalitatea, originaltasuna eta aniztasuna baloratuko dira, kontuan hartuta instalazioen hartzaileen adin bakoitzari egokitzen zaizkion eta BBUPren jardura nagusiarekin duten lotura.

- Programazioa: Lizitatzailleek egin beharreko jardueren egitaraua proposatu beharko dute, ordutegiak, iraupena eta hartzaileak adierazita.
- Kokapena: Proposatutako jardura eta instalazio guztien kokapenen planoak aurkeztu beharko da.
- Girotze- eta apainketa-programa: Gunea girotze aldera eta BBUPren eta Arrigorriagako Udalaren identifikazio-marka nola hartuko den jakite aldera, lizitatzailleek ekimenak azaldu beharko dituzte.
- Jaiaren irudia: Lizitatzailleek proposatzen duten irudiaren sormena baloratuko da. Irudi horretan, jardunaldiaren balioak jaso beharko dituzte, jaiaren 33. edizioa kontuan hartuta.

2. Kontratuaren eskura jartzen diren baliabide teknikoak: 15 puntu.

- Azpiegitura

Jardunaldian zehar parte-hartzaileen eskura jarriko diren baliabide guztiak proposatu beharko dituzte, eta horien artean, gutxienez, honako hauek egon beharko dira:

- Komunak
- Zakarrontziak
- Aldagelak
- Agertokiak
- Hesiak
- Edoskitze-guneak, aldagelak eta haurdunentzako elikagaiak dituen haurdunentzako gunea.

- Giza baliabideen antolaketa:

Egin beharreko jardura bakoitzean monitorizazio-lanak egingo dituzten langileen antolamendua deskribatu beharko dute, haien prestakuntza adierazita, bai eta lan horiek BBUPrekin koordinatuko dituen arduraduna ere.

3.- Ingurumen-irizpideak: 5 puntu

Egin beharreko jardueretan ingurumena babesteko eta garapen jasangarria sustatzeko hartu beharreko neurriak baloratuko dira.

Erabili beharreko materialei dagokienez, material birziklatuarekin sortzea baloratuko da, baita berrerabiltzeko aukera egotea ere.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzaille daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezkoa den gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA



☐ BAI

☒ EZ

KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

UNE-EN 14960 araua bete beharko dute puzgarri-ekipoen unitate guztiek.

Kontratistaren ordezkaria

BBUPren aurrean koordinazio- eta elkarrizketa-lanak egingo dituen pertsona izendatu beharko da.